

Patronalak eduki egokirik aurkeztu ezean, EAEko Gizarte Ekimenetako ikastetxeetan beste hamar greba egun egingo dituzte urtarrilean eta otsailean

- **Patronalek bilerak deitu dituzte, baina proposamenik ez dute aurreratu sindikatuek aldeztatik eskatu arren**
- **Hiru urte dira hitzarmena iraungita dagoela. Guztira, hamalau bilera egin dituzte sindikatuek aurrerapausorik gabe**

Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako langileek bederatzi greba egun egin dituzte jada, eta beste hamar greba egun gehiago dituzte deituta sektorean ordezkariak duten ELA, STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek: urtarrilaren 17, 18, 23, 24 eta 25erako eta otsailaren 6, 7, 8, 19 eta 20rako.

Bada, greba dinamikak behartuta, bilerak deitu ditzute mahai negoziatzailean ordezkariak duten Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalek. Lehena urtarrilaren 10erako, asteazkenerako.

Sindikatuek hitzarmena berritzeko akordioa lortu nahi dute, ikastetxeetako langileen baldintzekin lotuta baitago ikasleei eskaintzen zain hezkuntza kalitatea. Horregatik, orain arte bezala, bilerara joango direla baieztatu diete patronalei, eta eskatu diete aldeztatik helaraz dezatela aurkeztuko duten proposamena, edukiak aztertu eta negoziaketan ahalik eta gehien aurreratzeko. Izan ere, ez dute onartuko edukirik gabeko proposamenik, are gutxiago desmobilizazioa sustatzea helburua bada.

EAEko Gizarte Ekimeneko hitzarmenak hiru urte daramatza iraungita, eta Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalek proposamenik eta edukirik gabeko bilerak deitu dituzte; bai grebak hasi aurreko hamahiru bileretan, bai greben bitartean, azaroaren 27rako deitutakoan.

Hori horrela, sindikatuek fede oneko negoziaketa eta proposamenak lehenbailehen egiteko eskaera egin diete patronalei. Eusko Jaurlaritzari, bestetik, beharrezkoa izanez gero, gatazka bideratzeko esku har dezala eskatu diote.

Edukirik mahaigaineratu ezean, urtarrilareko eta otsailerako deitutako greba egunekin aurrera egin beste biderik ez dute izango. Era berean, ikastetxeetan sinadura bilketa bat abian jarriko dutela iragarri dute sindikatuek, hitzarmena berritzea posible egingo duten edukiak aurkeztearen alde.

Hain zuzen ere, aldarrikapen nagusiak lan zamak arintzeko neurrietan, sektore feminizatu eta prekarizatuarentzat hobekuntzetan, KPIa bermatuko duten soldata igoeretan, lanpostuak mantentzeko neurrietan eta Lanbide Heziketako edukietan oinarritzen dira. Euskara planak, berdintasun planak eta lan osasuna eta bereziki arrisku psikosozialei aurre egiteko planak ere jomugan ditugu sindikatuek.

2024ko urtarrilaren 9a



Salvo que la patronal presente contenidos adecuado, los colegios de Iniciativa Social de la CAV realizarán otros diez días de huelga en enero y febrero

Las patronales han convocado reuniones pero no han adelantado ninguna propuesta pese a la petición previa de los sindicatos

Hace tres años que el convenio está caducado. Ha habido un total de catorce reuniones sin avances por parte de las patronales

Los y las trabajadoras de los centros educativos de Iniciativa Social han realizado ya nueve jornadas de huelga. Los sindicatos con representación en el sector, ELA, STEILAS, CCOO, LAB y UGT tienen convocadas otras diez jornadas de huelga: para los días 17,18, 23, 24 y 25 de enero y los días 6, 7, 8, 19 y 20 de febrero-.

Esta dinámica de huelga ha forzado a las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA, con representación en la mesa negociadora, a convocar reuniones de mesa negociadora, la primera para el próximo 10 de enero.

Los sindicatos quieren llegar a un acuerdo para renovar el convenio, ya que la calidad educativa ofrecida al alumnado está ligada a unas condiciones de trabajo adecuadas. Por eso, como hasta ahora, han confirmado a las patronales que acudirán a la reunión y les han pedido que trasladen con antelación la propuesta que presentarán para analizar sus contenidos y avanzar al máximo en la negociación. De hecho, no aceptarán ninguna propuesta sin contenido, y menos si el objetivo es fomentar la desmovilización.

El convenio de Iniciativa Social de la CAV lleva tres años caducado y las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA han convocado reuniones sin propuesta ni contenido; tanto en las trece reuniones previas al inicio de las huelgas como durante las mismas, convocadas para el 27 de noviembre.

Así, los sindicatos han pedido a las patronales que negocien y propongan cuanto antes una negociación de buena fe. Y piden al Gobierno Vasco que, si es necesario, intervenga para encauzar el conflicto.

Si no se plantea ningún contenido, no tendrán más remedio que seguir adelante con las jornadas de huelga convocadas para enero y febrero. Asimismo, los sindicatos han anunciado la puesta en marcha de una recogida de firmas en los centros a favor de que las patronales presenten propuestas con contenidos que permitan la renovación del convenio.

Sus principales reivindicaciones se centran en medidas para aliviar las cargas de trabajo, mejoras para los sectores más feminizados y precarizados, subidas salariales que garanticen el IPC, medidas para mantener los puestos de trabajo y mejoras para la Formación Profesional. Los planes de euskera, los planes de igualdad y los planes para abordar la salud laboral y especialmente de los riesgos psicosociales también están en el punto de mira de los sindicatos.

Euskal Herria a 9 de enero de 2024



